

**GOBERNU JUNTAK 2023ko urtarrilaren 30ean EGINDAKO
OHIKO BILKURAKO AKTA**

LEHENDAKARIA

MAITE ANTON LENO (lehendakaria)

OÑATI

ETORRITAKOAK

BERNARDO KORTABARRIA

ANTZUOLA

AINHOA LETE

BERGARA

IZARO ELORZA

OÑATI

UNAI ELKORO

ARETXABALETA

CRISTINA MARQUINA

BERGARA

IRAITZ LAZKANO

ELGETA

GORKA ARTOLA

BERGARA

MAITANE MUÑOZ

ARRASATE

MARIA UBARRETXENA

ARRASATE

ANDER GARAY

ARRASATE

AINHOA CABERO

ARRASATE

ARITZ MURUA

ARRASATE

CRISTINA MARQUINA

BERGARA

Oharra: Cristina Marquina aurrekontuak bozkatzeko momentuan etorri da.

IDAZKARI KONTU-HARTZAILEA

Leire Ucin Soraluze

2023ko urtarrilaren 30ean, 11:15etan, Mankomunitateko lehendakaria, Maite Anton Leno, mahaiburu dela, Gobernu Juntaren bilkura hasi da, goian aipaturikoak bertan direla.

1.- Aurreko Gobernu Juntako bilerako akta onartzea, hala badagokio.

Ander Garayk EAJ-PNVko zinegotziak esaten du aktan jartzen duela Bernardo Kortabarria bilkuran zegoela, baina ez zela joan. Idazkariak erantzuten dio bertan zegoela. Bernardo Kortabarriak esaten du joan zela, baina bera Garazi Larrean ordezkoa dela, eta Garazi bertan zegoela. Idazkariak esaten du aldatuko duela.

2.-Dekretuen berri ematea.

Inork ez du ezer komentatzeko Lehendakaritza Ebazpenei buruz.

3.- EUROCONTROL, S.A. enpresari Epeleko hondakin ez arriskutsuen zabortegian atmosferara egindako gas emisioak eta inmisioak neurtu eta kontrolatzeko kontratua luzatzea onartzea, hala badagokio.

Mankomunitateak 2020.10.02an sinatu zuen EUROCONTROL, S.A. enpresarekin Epeleko hondakin

ez arriskutsuen zabortegian atmosferara egindako gas emisioak eta inmisioak neurtu eta

kontrolatzeko kontratua. Kontratu honen iraupena urtebetekoa da, izenpetzen den datatik zenbatzen

hasita, eta beste 4 urtez luzagarria, gehienezko 5 urteko epea bete arte. Orain arte, EUROCONTROL,

S.A. enpresak zuzentasunez eskaini du Epeleko gas emisio eta inmisioak neurtzeko zerbitzua eta,

ondorioz, Mankomunitateko Ingurumen Zerbitzuaren proposamena kontratua hau beste urtebetez luzatzea da, hau da, 2023.09.30 arte.

Puntua bozkan jartzen da, eta hau da emaitza:

Alde (13): Bernardo Kortabarria, Maite Anton, Ainhoa Lete, Ander Garay, Izaro Elorza, Unai Elkoru, Maitane Muñoz, Iraitz Lazkano, Gorka Artola, Ainhoa Cabero, Maria Ubarretxena, Aritz Murua, Xabier Igartua

Kontra: 0

Abstentzioa: 0

Beraz, hirugarren puntua aho batez onartzen da.

4.- ZURIKER, S.L. enpresari Epele zabortegiko lur gaineko uren, lurpeko uren eta lixibiatuen eta Bergarako Garbiguneko eta San Balerio garajeko isurketa uren laginak jasotzeko, landa neurketak egiteko eta laborategiko analisiak egiteko kontratua luzatzea onartzea, hala badagokio.

2019.03.26an indarrean sartu zen URIKER S.L. kontratistarekin sinatutako Epele zabortegiko lur

gaineko uren, lurpeko uren eta lixibiatuen eta Bergarako Garbiguneko eta San Balerio garajeko

isurketa uren laginak jasotzeko, landa neurketak egiteko eta laborategiko analisiak egiteko zerbitzua.

Kontratuaren epea urtebetekoa zen, urtez-urte luzagarria gehienezko 5 urteko epea bete arte,

izenpetzen den datatik zenbatzen hasita, eta kontratistarentzat derrigorrezkoa izango da luzapena,

baldin eta kontratuaren iraunaldia amaitu baino bi hilabete lehenago egiten bada aurretiko abisua.

Orain arte, URIKER S.L. enpresak zuzentasunez eskaini du aipatu laginak jaso, landa neurketak egin

eta laborategiko analitikak egiteko zerbitzua eta, ondorioz, 2023.03.26tik aurrera kontratua beste

urtebetez luzatzea proposatzen da, hau da, 2024.03.26 arte.

Alde (13): Bernardo Kortabarria, Maite Anton, Ainhoa Lete, Ander Garay, Izaro Elorza, Unai Elkoro, Maitane Muñoz, Iraitz Lazkano, Gorka Artola, Ainhoa Cabero, Maria Ubarretxena, Aritz Murua, Xabier Igartua

Kontra: 0

Abstentzioa: 0

Ondorioz, 4. puntua aho batez onartzen da.

5.- Mankomunitateko hainbat eraikin garbitzeko zerbitzuari dagokion kontratazioaren gastua, administrazio pleguak eta plegu teknikoak onartzea, hala badagokio.

Mankomunitateko eraikiniei dagokion garbiketa zerbitzuaren kontratua 2023ko martxoaren 19an bukatzen da. Hortaz, lizitaziora atera behar denez, administrazio pleguak eta plegu teknikoak arukezten dira Juntan onartuak izan daitezten.

Puntua bozkan jartzen da, eta hau da emaitza:

Alde (13): Bernardo Kortabarria, Maite Anton, Ainhoa Lete, Ander Garay, Izaro Elorza, Unai Elkoro, Maitane Muñoz, Iraitz Lazkano, Gorka Artola, Ainhoa Cabero, Maria Ubarretxena, Aritz Murua, Xabier Igartua

Kontra: 0

Abstentzioa: 0

Beraz, bosgarren puntua aho batez onartzen da.

6.- 2023ko aurrekontua onartzea, hala badagokio.

Ogasun Batzordean EAJ-PNV-k proposamenak egin zituzten, eta hona hemen erantzuna:

- Lehenengo kapitulua 2022/12/31an onartutako RPTaren arabera izatea, ez sartzea arrazionalizazio programatik eratorriko diren kopuru berriak. Gure eskaera da arrazionalizazio programa aurrera ez eramatea.

Balizko arrazioanalizazio plana onartzeak ekarriko lituzkeen kreditu beharrak jasotzea aurreikusten da. Gai honen lanketa esparrua aurrekontuen negoziatuetatik kanpoko delako uste dugu.

- Kirola saila: o Elkartegintza formakuntza: 17.000€ jartzea o Kirol sariak: 18.000€ jartzea.

Debagoienako Kirol Sariak bertan behera uztea kirol mahairen lanketa eta erabakia izan zen eta 2020tik jaso ez dena. Ez da ikusten egindako proposamena onartzea. Elkartegintza formakuntzarako 17.000€ mantentzea egoki ikusten dugu.

- Gizarte zerbitzuen mapa: 4 urte geldirik egon da gizarte zerbitzuen mapa, ez da ezer egin. Azken bilera batean komentatu zen 2022ko Maiatzerako proposamen tekniko bat egingo zela. Ulertuta ordua dela gaia seriotasunarekin hartzeko, gure proposamena da 30.000€tako partida bat sortzea, gizarte zerbitzuen mapa aurrera ateratzen hasi ahal izateko.

GFAak Gizarte zerbitzuen karta mapen garapenerako beharrezko lanketa teknikoak garatzeko hartu zuen konprozeua egikaritzen ez dela ikusita egokia deritzogu gure kabuz lanketa hori egiten jarraitzeko beharrezko diru izendapena izatea. 30.000€ak jasotzea onartzea proposatzen dugu.

- Turismo bulegoa txandakakoa izatea eskatzen dugu, uda garaian herri guztietan egon ahal izatea turismo bulegoa, txandaka, egun bakoitzean herri ezberdin batetan.

Mankomunitatetik ematen den turismo zerbitzua eta eskaintza herrien artean modu ekitatiboagoan emateko beharrezko azterketa egiteko konpromisoa hartzea proposatzen dugu.

- Energiaren plana egikaritzeko: 20.000€.

Ondo deritzogu energia planean jasotako ekintzen garapenerako 20.000€ jasotzea. Aurrekoak kontuan izanik, Ander Garayk egindako aurrekontu aldaketa proposamen ondorioz Debagoienako Mankomunitateko aurrekontu zirriborroan aurrez aipatutako puntuei egokitutako kreditu lerroetan 67.000€ txertatzeko proposamena idazkari-kontuhartzaileari jakinazi eta gobernu juntak onartu ahal izateko beharrezko dokumentazioa prestatzeko eskatuko zaio.

2023ko aurrekontuaren onarpena bozkan jartzen da, eta hau da emaitza:

Alde (8): Maite Anton, Bernardo Kortabarria, Izaro Elorza, Gorka Artola, Iraitz Lazkano, Xabier Igartua, Cristina Marquina, Ainhoa Lete

Kontra (6): Ander Garay, Maria Ubarretxena, Aritz Murua, Maitane Muñoz, Unai Elkoro, Ainhoa Cabero

Abstentzioa: 0

Beraz, Mankomunitateko Estatutuetako 25. artikuluan xedatzen den bezala, gehiengo absolutua beharrezkoa da Mankomunitateko aurrekontua onartzeko.

2023ko aurrekontua ez da onartzen.

7.- Galdera eskaerak.

Ez dago.

Eta beste aztergairik ez dagoenez, 11:45etan, bukatutzat eman da bilkura.

Arrasaten, 2023ko urtarrilaren 30ean.

LEHENDAKARIA

IDAZKARI KONTU-HARTZAILEA

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

Urtarrileko bilkurako akta